

garbilekua

22

INFORMAZIO-GIDA



DEFINIZIOA

Arriskuen ebaluazioa: arriskuak identifikatzeko, lanetik eratorritako kalteak baloratzeko eta kalte horiek desagerrarazi edo murriztuko dituzten ekintzak zehazteko balio duen prozesua.

Laneko ekipamendua: lanean erabiltzeko edozein makina, aparatu, tresna edo instalazio.

Norbera Babesteko Ekipamendua - NBE: lanean segurtasuna edo osasuna mehatxa dezakeen arrisku batetik edo bat baino gehiagotik babestuta egoteko, langileak soinean edo bere gorputzari lotuta daraman edozein ekipamendu edo helburu horretara zuzendutako edozein osagarri.

LOTUTAKO ARRISKU NAGUSIAK

PERTSONAK ETA OBJEKTUAK ERORTZEA

- Irrist egitea, zorua bustita egoteagatik.
- Estropezu egitea, pasabideetan eta laneko guneeetan dauden nahiz horiek zeharkatzen dituzten hainbat motatako objektuak daudelako eta zoruan koskak daudelako.
- Objektuak erortzeko arriskua, laneko ekipamenduak zerbitzuko hainbat puntutan edukitzeagatik: eskuko eskailerak, kaxak, orgak, etab.

EBAKIAK

- Ebakiak egiteko arriskua, arropan bildutako material eta ekipamendu ebakitzaille/zulatzailleekin.
- Ebakiak egiteko arriskua, zakuetan egon daitezkeen material hauskorrekin: beirazko basoak, termometroak, etab.
- Ebakiak egiteko arriskua, ekipamenduen ertz, profil edo kanpora aterata edo herdoilduak dauden metalezko piezekin.
- Kolpeak-Talkak: Ekipamenduekin, etab.

TRABATZEA

- Traba egitea eskumuturrekoek, eraztunek, etab.
- Traba egitea orga, kaiola, paretara edo abarren artean (batzuetan espazio estuak izan daitezke).

SUTEA

- Erraz su hartu dezaketen produktuak (detergente likidoak) eta material erregeaia (arropa, kaxak, etab.) biltegiatzea.
- Larrialdi-kasuan nola jardun behar den ez jakitea.



ARRISKU BIOLOGIKOA

- Ebakiak eta sastadak kutsatuta dauden objektu ebakitzaille/zulatzailleekin.
- Objektu, gainazal eta ekipamendu zikinak ukitzea.
- Baliteke kutsatzaileen aire bidezko eragina jasatea.

ZARATA/TENPERATURA/ARGIA

KARGAK MANIPULATZEA, JARRERA DESEGOKIAK, GEHIEGIZKO ESFORTZUAK

- Askotariko kargak manipulatzeko, altxatzea eta leku batetik bestera eramatea.
- Tresneriaren eta instalazioen egoerarengatik eta ezaugarriengatik jarrera behartuak edo errepikakorrak (makurtuta, luzatuta, luzaroan mantendu beharrekoak) hartu behar izatea.

BESTE ARRISKU BATZUK

ARRISKU ELEKTRIKOA: Ekipamendu elektrikoak erabiltzeagatik (osasunerako arriskurik sortzen ez badute ere, deskarga elektrostatiskoak ere sartu dira gida honetan, zerbitzuan ohikoak direlako).

ARRISKU KIMIKOA: manipulatzeko diren produktu kimikoengatik, arropa zikinean agertzen diren bestelakoengatik, arropa kutsatuarengatik edo horiekin bustitakoarengatik.



PREBENTZIOA

ERORTZEKO, EBAKIAK EGITEKO EDO TRABATZEKO ARRISKUAREN AURREAN

- Erabili oinei ondo egokitzen zaizkien **zola irristagaitza daukaten oinetako** itxiak.
- Jaso isuriak eta konpondu ihesak lehenbailehen eta era egokian. **Ez erabili ezta lurrean arroparik utzi ere**, adibidez mantarik, isuria xurgatzeko asmoz.
- **Tresneriaren, instalazioen eta abarren egoera gainbegiratu** eta gabeziaren bat antzematen baduzu, jakinarazi zure erdi-mailako arduradunari.
- **Errespetatu seinaleak** eta ez erabili debekatutako tresnak.
- **Ez erabili** eskumuturrekorik, eraztunik edo **katiga litekeen beste edozein objekturik**.

SUTEEN ETA LEHERKETEN ARRISKUAREN AURREAN

- **Kasu egin seinaleei**.
- **Joan prestakuntza-saioetara**.
- **Gainbegiratu** lantokia **aldizka**. **Mantendu dena txukun eta garbi**.
- **Ohartarazi zure erdi-mailako arduraduna gabezia, anomalia edo bestelakorik aurkitzen baduzu**, arriskuak ekiditeko.

ARRISKU BIOLOGIKOAREN AURREAN

Erabili adierazitako **norbera babesteko ekipamenduak**. Gainbegira

- itzazu aldizka eta, hondatuta edo puskatuta daudenean, aldatu.

Txertoak behar bezala hartuta eduki.

- Jaso isuriak ahal bezain lasterren eta zipriztinduz gero, garrantzitsua
- da norbera garbitzea eta uniformeak aldatzea.

KARGAK MANIPULATZEAK, JARRERA DESEGOKIETAN EGOTEAK ETA GEHIEGIZKO ESFORTZUA EGITEAK DAKARREN ARRISKUAREN AURREAN

- Erabili eskura dituzun **ekipamendu mekanikoak** karga leku batetik bestera eramateko.
- Prestatu kargaren manipulazioa aldeztu aurretik: saiatu karga altxatzeko nahiko leku edukitzen, jarri ekipamendu mekanikoa kargatik gertu eta **prestatu ibilbidea** oztopoak kenduz.
- Saiatu bete beharreko **orga zure aurrean** edukitzen, biratu beharrik ez izateko.
- Ahal izanez gero, **karga banatu edo bereizi**.
- Laguntza eskatu lankideei, karga astunegia denean. Ahal denean, saiatu orga bi lankideren artean eramaten.



- **Bultzatu orgak** mugimenduaren norabidean eta ez egin tira.
- **Ez jarri gehiegizko kargarik orgetan.** Egin joan-etorri gehiago behar izanez gero.
- **Erabili arropa eta oinetako erosoak** kargak leku batetik bestera eramateko.
- **Txandakatu muskulu-jarduera desberdineko lanak.**
- **Aldatu jarrera.**
- **Luzatze-ariketa** txikiak egitea gomendatzen da.

ARRISKU ELEKTRIKOEN AURREAN

- **Ondo erabili instalazioak eta tresneria.**
- Saiatu lapurrak eta luzagarriak gehiegi ez erabiltzen.
- Erabili norbera babesteko ekipamenduak, zola antiestatikoa daukaten oinetakoak.

ARRISKU KIMIKOAREN AURREAN

- Jakinaren gainean egon manipulatzeko dituzun produktuak nolakoak diren. Kontuan hartu produktuaren **segurtasun-datuen fitxa**.
- **Identifikatu eta itxi produktu kimikoen ontziak** erabili ondoren.
- Mantendu **gutxieneko stock** operatiboa.
- Biltegiratzean, **kontuan hartu produktuen arriskugarritasun-ezaugarriak** eta bateraezintasunak.

ARAU OROKORRAK

ORDENA ETA GARBITASUNA

- **Mantendu zorua garbi eta lehor.**
- **Mantendu zure lantokia txukun.**
- Ez gaititu biltegitratutako materialaren pilatze-muga, apurtu edo erori liteke-eta.

INFORMAZIOA

- Erabili beharrezkoak diren lan-protokoloak.
- **Errespetatu lan seguruaren arauak.**
- Kontuan hartu ekipamenduak **erabiltzeko arauak**.
- **Jakinarazi aurkitutako gabeziak** (ekipamenduetan eta instalazioetan).
- Kontsultatu **produktuaren segurtasun-datuen fitxa** (xaboia, detergenteak, deskoipetzailak, orban-kentzekoak, etab.) eta **jardun bertako jarraibideen arabera**.



- Jakin istripu, gorabehera edo larrialdi baten kasuan nola jardun behar den.
- Haurdun bazaude edo egon bazaitezke, kontsultatu Laneko Osasun zerbitzuan.
- Joan Laneko Osasun zerbitzuak agindutako **azterketa medikoetara**.

IZAN LAN-PRAKTIKA ONAK

- Ez erabili eraztunak, eskumuturrekoak, etab.
- Eraman une oro **laneko arropako botoiak lotuta** eta ilea bilduta, eta saihestu zintzilikarioak eta mahuka luzeak.
- Erabili NBE egokiak: arropa zikinaren hautaketa-tiraderan: **eskularruak, mantala, maskara**; erortzea saihesteko, erabili **zola irristagaitza daukaten oinetako itxiak**; erabili belarrietarako tapoiak eta betaurrekoak adierazitako zonetan, produktu kimikoak manipulatzeko, erabili segurtasun-datuen fitxan adierazitakoak.
- **Babestu zauri** irekiak apositu batekin eta eskularruekin, toxikoak azaletik sartzea ekiditeko.
- **Garbitu eskuak** arrisku biologikoa dagoenean eta produktu kimikoak manipulatutako ondoren. Horretarako hoberena da, likido detergente bat eta ur ugari erabiltzea.
- **Aldatu uniformeaz** zipriztinduz gero edo orban handi bat izanez gero.
- **Errespetatu pasabideak edo pasaguneak**, eta ez egin salto ekipamenduaren gainetik.
- **Ibilgetu** ekipamenduak, garbitzeko, gainbegiratzeko, etab.
- **Ez manipulatutako** ekipamenduak **era desegokian**, libratzeko edo eroritako materialen bat hartzeko. Abisatu mantentze-saileko langileei.
- Kontuan hartu zaku edo poltsa nolakoa den eta haren kolorea, zikindutako edo kutsatutako arropa identifikatzeko.
- **Seinaleztatu matxuratutako ekipamenduak** edo erabili ezin direnak.



BESTELAKO NEURRIAK

- Parte hartu zure zerbitzua hobetzeko ekintzetan, adibidez **protokoloak egiteko orduan (adibidez: instalazioak, lanak, ekipamenduak, larrialdi- eta istripu-kasuan jarduteko modua, etab. kontuan hartzen dituen harrera-protokoloa), norbera babesteko ekipamenduak** hautatzean, etab.
- Ohartarazi zure gaineko arduraduna ekipamenduen funtzionamendu-fitxetan aldaketa, akats edo bestelakorik aurkituz gero.
- **Errespetatu** zure lankideen **lan-eremuak** eta pasabideak.
- **Kasu egin seinaleei** (ez erre, debekatuta dago; errespetatu garbitu berri dauden zoruak, etab.).